

LAUGARREN HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren C2 maila

IDATZIZKO AZTERKETA

- Idatzizko azterketak **bi proba** ditu: irakurmena eta idazmena.
- **1h 45 min** dituzu azterketa egiteko.

| | PROBEN EZAUGARRIAK | AURREIKUSITAKO DENBORA | PUNTUAZIOA (GEHIENEZ) | PUNTUAZIOA (GUTXIENEZ) |
|-----------------|--|---------------------------|--------------------------|---------------------------|
| IRAKURMEN PROBA | <ul style="list-style-type: none"> • Bi ariketa dauzka. Biak egin behar dira. • Bi irakurgai eta guztira 10 item. Balio berekoak (2 puntu). Gainditzeko, 5 erantzun behar dira zuzen. Txarto erantzuteagatik ez da punturik kenduko. • Testuen luzera guztira: 900 hitz gehienez. | 35 min | 20 | 10 |
| IDAZMEN PROBA | <ul style="list-style-type: none"> • Ariketa bakarra egin behar da eta eskatutako hitz kopurua bete. Eskatutako hitz kopurua ez idazteagatik puntuak kenduko dira. | 70 min | 30 | 15 |

- **Irakurri** atal bakoitzean datozen **argibideak** eta egizu bertan jartzen duena.
- Egin **idazmen-probako ariketa** horretarako eman zaizun **aparteko orrian**.

1. ariketa

Identifikatu testua osatzeko falta diren testu zatiak.

Markatu testuko hutsuneak (1, 2, 3...) betetzeko zein diren testu zatirik egokienak (A, B, C...).

Aukeran ematen zaizkizun testu zatitako bat sobera dago.

NONDIK GATOZEN JAKIN, NORA JOAN EBAZTEKO

Salbuespen-egoerak astea bete duenean, beldurrak, ziurgabetasunak eta asperdurak hamaika hausnarketa sakonetarako bide eman digute. Berorietatik ihes egiteko, etxeko liburutegiari hautsa kentzearekin bat, heldu zaigu formatu digitalean literatura, zinema eta bestelako arteek utzitako lan andanarako sarbidea. **1** Ni neu, *The Terminator* (1984) film ezaguna ikusten aritu nintzen bart, aspaldiko partez, eta iruditzen zait aurrera begirako beldur apokaliptikoa erlatibizatzeke baino, atzera, ezagunera begira, lasaiago lo egiteko ariketa izan zela.

Atzera begiratzea, dena den, bada aurrera begiratzeko modu on bat ere eta zientzia aktualitatea izan da horren testigu egunotan. **2** Hain zuzen ere, hastapeneko bizitza zelularra ahalbidetu zuten prozesu metabolikoen ardura izan zuten egitura proteikoak identifikatzea lortu dute, egun ezagutzen ditugun proteinen konexio-sareak metabolismoan duten zereginaren arabera aztertuz eta berorien ibilbide ebolutiboa berreraikiz. **3** Argitaratutako ikerketak erakusten duenez, bi izan ziren hastapeneko proteina horiek: Rossmann izeneko tolesdurak dituztenak eta ferredoxina.

Atzera begiratze hori baina, ez da izan gure jatorria hobeto ezagutzeko egin den ariketa erromantikoa, baizik eta abiadura bizian hazten dabilen bizitza estralurtarraren bilaketan kokatzen den beste kate-begi bat. **4** Helburua argia da: etorkizunean egitura proteiko horiek aurkituz, bizitza estralurtarren arrastoari hobeto jarraitzea. Eta arrastoa diot, dagoeneko identifikatua izan baita jatorri estralurtarreko materia organikoa –aminoazidoz gain nitrogenoa eta oxigenoa zituen– 2018an Marokon eta AEBn aurkituriko meteoritoetan. Bizitza estralurtarraren bila, nondik gatozen aztertzea da nora jo behar dugun ebazteko bidea, antza.

Etxeko pareten artean, begiradaren ortzimuga gure zilborrean jarri nahi digutenean, antzera egin dezakegu geuk ere. Artean eta zientzian arakatu, ziurtasunak bilatu, ziurtasunak hautatu, eta baita gaueko zeruan pizten zaizkigun astro bizilagunei begiratu ere. Nire ustez bederen, ziurtasun-iturri galanta eskaintzen dute gizateriaren ibili efimeroan betiereko diren astroek. Gaur nireak eta atzo haienak bezala, bihar ere iltzatuko zaizkielako hamaika begi betiko astro zaharretako argi berriei. **5** Gizateriarekin konektatzeko ez bada ere, izan bedi errutina apurto eta begi-bista urrutira eramateko aitzakia.

ZOZAIA, G. <naiz.eus/gaur8>, 2020-03-21.
Egokitua

1. ariketa. Txertatu testu zatia

OHARRA: Aukeran ematen zaizkizun **testu zatitako bat sobera dago.**

- A.** Astelehenean PNASen argitara eman zenez, Rutgers Unibertsitateko (New Jersey, AEB) ikerlariek argi bat piztu dute bizitzaren jatorriaren gainean dugun misterioaren inguruan.
- B.** Ezagutu dugun gizateriaren heriotzaren testamentua balira bezala, aurrean ezer hoberik izango ez dugun iragarle erromantikoak dirudite lan guztiok.
- C.** Aspalditik galdetu izan dute biologo eboluzionistek nola sortu zen bizitza lurrian. Gehienentzat, konposatuen elkarrekintza lurtar baten osteko produktua da.
- D.** NASAren aterkipean lan egiten duen ENIGMA taldean parte hartzen dute aurkikuntzaren egileek.
- E.** Proteinak aminoazido-kateak dira, espazioan egitura edo tolesdura jakin bat hartzen dutenak, eta horregatik askotariko funtzio metabolikoak betetzen dituztenak.
- F.** Salbuespen-egunotan, etxeak ekialdeko zerua ikusten uzten badizue, Marte, Jupiter eta Saturnoren arteko batasun polita izango duzue ikusgai, hodeiek uzten dizueten heinean.

■ Idatzi dagokion letra ondoko laukietan:

| | | | | | |
|--------------|---|---|---|---|---|
| Hutsuneak | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 |
| Testu zatiak | | | | | |

| | |
|-----------|--|
| Soberakoa | |
|-----------|--|

OHARRA: Soberako aukera **ez da jaso behar erantzun-orrian.**

2. ariketa

Ondoren testu bat daukazu. Irakurri eta erantzun galderari.

Aukeratu erantzuna. Bakarra da zuzena.

AZPIEGITUREN MITIFIKAZIOA

Altzaniako udalbatzan Abiadura Handiko Trenaren aldeko mozioa onartu zen, nahiz jakitun izan geltokirik ez zutela izango eta herriko erromeria kuttuna ospatzen den eremua txikitu egingo zuela.

Arranondo eskualdeko Mankomunitateak luze zeraman Foru Aldundiarekin negoziatzen industria-poligonorako proiektuaren inguruan, komunitarioki sorturiko enpresak kokatu ahal zitezten. Aldundiaren erantzuna ezezkoa zen, ez baitzuten sinesten enpresa-proiektu horiek arrakastarik izango zutenik tradizio industrialik gabeko, errepide kaxkar eta menditsuez komunikaturiko eta aireportu, industria-gune garatu, zein garraio-korridore modernoetatik urrun zegoen eskualdean. Aholku errepikakorra hauxe zen: proiektu horiek 20-40 kilometrora zeuden gertuko eskualdeetako poligonoetara lekualdatzeko. Azkenean, poligonoa eraiki eta hamar urteren buruan, arranondotarrek frogatu zuten asmatu zutela, ekonomiako eskuliburu guztiek ziotenaren aurka industriagune sendoa eta ehunka lanpostu sortuz.

Azkenik, Luzaro eskualdea despopulatzen ari zela eta, hiriburutik kudeatu zen Plan Estrategikoan idatzitakoari jarraiki, poligono bat eraiki zen inbertsioak eta enplegua erakarriko zituelakoan. Hamar urte geroago ia hutsik dirau.

Toponimoak fikziozkoak dira, gertaerak ez. Garapenaren eta azpiegituren arteko harremanaren irudikapen erreala dira. Ekonomiaren pentsamolde zaharkitu eta neoliberaletan, zein diskurtso politikoetan, garraio-azpiegiturretan eginiko inbertsioek hazkunde ekonomikoan, enpleguan eta enpresen lehiakortasunean eragin positiboak dituztela baieztatzen da zalantzarik gabe. Ugaritu diren txosten eta azterketek, ordea, garraio-inbertsio eta emaitza ekonomiko positiboaren artean harreman kausal zuzena ez dagoela erakutsi digute.

Azterketa horiek, oro har, diote garraio-inbertsioek errendimendu beherakorrak dituztela. Hots, lurralde batek garraio-sistema heldua badu, Europako herrialde industrializatu gehienetan gertatzen den moduan, autobia, aireportu edo abiadura handiko tren gehiago eraikitzeak ez du jarduera ekonomiko gehiago sortzen. Bestalde, garraioaren ekonomialariek aspaldi azpimarratu dute garraioaren hazkunde neurrigabeak eta garraio-azpiegituren hipertrofiak efektu negatiboak sorrarazten dituztela ekonomia aurreratuenetan, hala nola kongestioak, erregai fosilekiko mendekotasuna, ingurumenari kaltea...

Europar itzal handia izan du 1999an argitaratu zen *Standing Advisory Committee on Truk Road Assessment (SACTRA)* txostenak. Errentagarritasun-azterketen inguruan, desegokiak eta benetako eragin guztiak barneratzen ez zituztela ohartarazi zuen. Hori dela eta, kostu-irabazien ebaluazio zorrotzak inbertsio-proiektu guztiei aplikatzea eta gizarte-onura garbiak sortzen ez zituztenak alboratzea aholkatzen zuen.

1991ko Europako Garraio Ministroen Konferentziaren azterketen arabera, enpresak non kokatu erabakitzerakoan garraioa bigarren mailako irizpidea da. Orokorrean garraio-kostua ez da faktore garrantzitsua, esplotazio-kostuen % 3-5 inguru baino ez baita. Horregatik, gutxienez bitxia gertatzen da garraio-inbertsio bat enpresen lehiakortasunerako eta ekonomiarako «estrategikoa» dela entzutea, non eta garraio-sareaz ongi hornituriko lurralde batean.

Kontraesankorra da industria, berrikuntza edota zientzia eta teknologiako plan instituzionala eta akademiaren munduan indartu den lehiakortasunarekiko ikuspegi modernoarekin. Klasikoak diren lehiakortasun *hard* faktore ekonomikoaren aurrean (kapital-inbertsioa, garraio-azpiegiturak, lehengaiak, energia-iturriak...), *soft* faktore kognitibo, sozial, kultural eta instituzional estraekonomikoak (ezagutza, gizarte-kapitala, kultura-aktiboak...) lehenesten diren garaiotan, garraio-azpiegiturekiko eskema zaharkituek dira.

Azpiegitura horietako batzuek, aurrekontu publikoen puska handia eskuratzen duten inbertsio ia megalomanoak izanik, aukera-kostu izugarria izan dezakete. Esan bezala, inbertsio horien errentagarritasun ekonomiko eta soziala urria edo negatiboa izatea nahikoa ez balitz bezala, xurgatzen duten dirutzarekin egin zitezkeen inbertsio hobeen emaitza eta onuren galera ere badago. Horregatik guztiagatik, diru publikoarekin tamainako inbertsioak egiten diren aldiro derrigorrezkoa behar luke kostu-irabazien azterketa zorrotzak egitea.

Zoritzarrez, Pirinioetatik behera garraio-inbertsioen errentagarritasun ekonomiko eta soziala ebaluatzen duten ikerketak urriak dira. Ereku akademikoan lantzen dira; erabakiak hartzen dituztenen artean oihartzun eskasa dute eta sarri inbertsioa egin eta gero, berandu denean, idazten dira. Hor dago duela bi urte FEDEAk argitaratutakoa, adibide paradigmatico bezala. Ikerketa horrek abiadura handiko lau korridore aztertzen ditu: Madril-Bartzelona, Madril-Andaluzia, Madril-Levante eta Madril-Iparraldea. Ondorioa ezin daiteke erabatekoagoa izan: “Gure emaitzen arabera, Espainian ez da arrazoi ekonomiko sendorik abiadura handirako proiektuetan inbertitzeko; beraz, horrela jokatzeko beste arrazoi batzuk direla pentsatu behar dugu”. Errakuntzak saihesteko, ñabardura bat: FEDEAren patronatua IBEX-35eko enpresez osatua dago.

Gizarte garatu eta moderno batean asaldagarriak behar lukete izan, akaso delitu ere bai, kostu-irabazien analisi serio eta zorrotzik gabe diru publikoaz egindako inbertsio potoloek.

GARMENDIA, J. *Naiz*, 2017-09-17.
 Egokitua

2. ariketa. Aukeratu erantzuna

6. Zer erakusten digu Arranondoko esperientziak?

- a) Administrazioak ez duela proiektuak malgutasun handiagoarekin aztertzerik.
- b) Ekonomia-liburuetan esaten dena ez dela kontuan hartzekoa.
- c) Txosten eta aurreikuspen ofizialen kontra ere badela arrakasta izaterik.

7. Zer esaten digu artikulugileak Luzaro eskualderako egitasmoaz?

- a) Plan estrategiko batzuek huts egiten dutela.
- b) Plan estrategikoari ez zitzaiola orpoz orpo jarraitu.
- c) Ekonomiaren ikuspegi eta diskurtso politiko zaharkituei men eginez sortu zela.

8. Nola laburtuko zenuke testuan garraio-inbertsioaz esaten zaiguna?

- a) Oso zeharkako eta luzera begirako errentagarritasuna dute, eta betiere, kostu-irabazien azterketa ondo egin denean.
- b) Txosten batzuek diotenaren aurka, onura baino gehiago galera eragin dezakete edozein dela ere eskualdea edo lurraldea.
- c) Herrialde batzuetan funtsezkoa da kostu-irabazien azterketa egitea, horrelako inbertsioek mesede baino gehiago kalte egiten dute sarritan eta.

9. Azken boladan nagusitu diren txostenen arabera, zein eratako kaltea sortzen dute garraio-inbertsioek?

- a) Soziala.
- b) Ekonomikoa.
- c) Soziala zein ekonomikoa.

10. Zergatik dio FEDEAren patronatua IBEX-35eko enpresek osatzen dutela?

- a) Enpresa horietako askok *hard* faktoreak sustatu dituztelarik, haren txostenak kontrakoa defendatzeak sinesgarritasuna ematen diolako.
- b) Enpresa horietako askok *hard* faktoreak sustatu dituztelarik, haren txostenak kontrakoa defendatzeak sinesgarritasuna kentzen diolako.
- c) Enpresa horietako askok azken urteetan *soft* faktoreen alde egin dutelarik, ezin gaituelako harritu haren txostenak dioenak.

Oharrak

- Oso kontuan hartu behar dituzu **gaia** eta eskatzen zaizun **testu mota**.
- Garbi idatzi eta saiatu letra argia egiten: **ez da zuzenduko irakurri ezin denik**.
- Erabili boligrafoa idazteko.
- Zuzentzeko orduan, hauek hartuko dira kontuan:
 - Eskatutako guztiari erantzun diozun eta nola: egokitasuna
 - Ideiak garbi adierazi dituzun: koherentzia eta kohesioa
 - Euskara nola erabili duzun: zuzentasuna eta aberastasuna.

ZIRRIBORROAK EGITEKO LEKUA ONDORENGO ORRIETAN DAUKAZU.
EGIN ARIKETA HORRETARAKO EMAN ZAIZUN APARTEKO ORRIAN.

Idatzi iritzi-artikulu bat *Administrazioa Euskaraz* aldizkarirako

- Jarraian, egunkari edota aldizkarietan argitaratutako **zenbait testu-aipamen** aurkituko duzu.
Bat aukeratu eta, bertan jasotzen den informazioa oinarri harturik, **iritzi-artikulua** idatzi behar duzu.
- **Gutxienez 250 hitz** idatzi behar dituzu.
- Testu antolatua eta koherentea egin behar duzu.
 - Iritziak **azaldu** egin behar dituzu.
 - Ideiak **garatu eta lotu** egin behar dituzu.
 - Ezin dituzu hitzez hitz kopia lagungarri gisa ematen zaizkizun aipamenetako esaldiak.

TESTU AIPAMENAK

1.

ESKLABOTZA

Hamarkada gutxitan gure bizimoduak aldaketa handiak jasan ditu, familia-ereduak erabat aldatu dira, emakumea lan-merkatuan sartu da, eta horrek ondorioak ekarri ditu etxera eta gizartera.

Iragan mendearen amaiera aldera, garai batean etxeko lan gisa hartzen zena merkatura atera zen, etxeko adinekoen edo ezinduen zaintza-lana, hain zuzen. Zaintza behar duten adineko eta ezindu asko etxean bizi dira, beraz, norbait behar dute ondoan, zaintzalea.

Sektore hori oso berezia da, eta egoki arautu gabe dagoenez, lan-baldintza tamalgarriak dituzte langile horiek. Izan ere, Konstituzioan jasoa dagoen intimitaterako eskubidea dela-eta, hor ez dago, adibidez, lan-ikuskaritzarik, euren lan-astea 60 ordukoa da; eta barne-erregimenean daudenen egoera are okerragoa da. Inolako azalpenik gabe lanik gabe kalean utz ditzakete eta langabezia-saria jasotzeko eskubiderik ez dute: mendebaldeko esklabotza modernoa.

REZOLA, I. 2020-03-12.

2.

**HEZKUNTZA LEGE BERRIA
 EAE-N**

EJ onartzean den hezkuntza-legeak kezkatuta ditu eskola publikoko eragile ugari, orain arteko legeak ez bezala barne hartuko dituelako itunpeko eskolak ere: “Nola banatuko da dirua? Oinarri eta jardunbide berak bete beharko dituzte denek?...”

Sare publikoaren ustez, interes ekonomikoak, erlijiosoak, etab. dituzten ikastetxeak ezin ditu maila berean barne hartu legeak: “Zer den publikoa eta zer ez eztabaidatu behar dugu? Ez dugu uste *publiko* hitzaren esanahia moldatzeak mesede egingo dionik gure hezkuntza-sistemari”.

Ikastolen elkartekoek, ordea, argi dute legeak itunpekoak ere barne hartu behar dituela. Finean, publikotasun berri bat aldarrikatzen dute, ez titulartasunari lotua, zerbitzuari baizik, ikastolek zerbitzu publiko bat ematen dutela ulertuta.

**GARCIA, M. <argia.eus/blogak>, 2019-10-02.
 Egokitua**

3.

ETXERIK GABE, KALERIK GABE

Pertsona bakarrarentzako bankuak, burdinazko barrez zatikatuak, hodi itxurakoak edo metalezkoak bestela. Hesiz inguratutako edo mugatutako aterpeak. Eserlekurik gabe berregituratutako plazak. Etxebizitzen atarian jarritako burdinazko ziriak, edo, bestela, parkeetatik desagertutako zuhaitz eta zuhaixkak. Zubi azpietako lurzoru malkartsuak. Lehen begiratuan, erabaki arkitektoniko hutsalak direla pentsa liteke, errentagarritasun ekonomikoaren aitzakian edota diseinu arrazoiengatik egindako elementuak. Gehienetan, ordea, herritarrak uxatzeko mekanismoak dira. Etsai arkitektura esaten zaie horrelako estrategia arkitektonikoei, atsedenerako edota lotarako balia daitezkeen guneak mugatzen baitituzte. Herritar ororentzat dira kaltegarriak, baina etxegabeak uxatzeko eraikiak izan ohi dira, horiek pairatzen baitituzte ondoriorik lazgarrienak. Etxebizitarik ez dute, eta kaletik ere bota egiten dituzte.

GUTIERREZ, U. Berria, 2020-01-25.
Egokitua

4.

EGONEAN

Presentismoa oso hedatua dagoen praktika da Espainian, konpainien % 56k onartzen du beren antolaketan ere gertatzen dela halakorik.

Lanetik “azkar” ateratzearen beldurra eta motibaziorik eza daude nagusiki praktika txar horren atzean; baina, enpresa gehienek errendimendua objektiboki neurtzeko tresna nahikorik ez izatea ere ohikoa da eta, azkenean, konpainiek, zeinahi sektoretakoak direlarik ere, daukaten euskarri bakarrari heltzen diote, hots, presentzia fisikoari.

Nolanahi ere, Espainiako araudiak oso urrun daude malgutasunaren eta elkarrekiko konfiantzaren formulatara bideratutako lan-joeretatik –telelana edo *smart workinga*, kasu–. Kongresuak oraintsu onartu du, adibidez, langilearen lanaldia “fitxatzeko” betebeharra –(aparteko orduetan) iruzurra jazaritzeko aitzakiarekin, hori bai–.

MUNERA, I. El Mundo, 2017-12-19.
Egokitua

5.

KORONABIRUSA: MEHATXUA ETA ERRONKA

Orain dela hilabete batzuk erabat ezezaguna genuen 2019nCoV koronabirusa, geroztik hainbeste eragin duena hedabideetan, ekonomian eta lider politikoengan.

Koronabirusaren erasoak erronka botatzen digu hainbat alorretan proban jarriz. Batetik, gure solidaritate politikoa: ea mundua gai izango den elkar hartzeko ez mugarik ez ideologiarik ezagutzen ez duen etsai komunaren aurrean. Bestetik, gure solidaritate ekonomikoa ere frogarazten digu: zer dugu nahiago, 2019nCoV honen erasoari aurre egiten eman dirua, ala gaixotasunaren kalte-ondorioen kudeaketa ordaintzen? Eta, azkenik, solidaritate zientifikoa: iritsiko ote da mundua arazo komun erantzunak elkarrekin partekatzea?

Argia, 2020-02-11.
Egokitua

6.

ONGIZATEA

Azken urteotan, sekulako aurrerapausoa eman du bizi-kalitateak. Izan ere, lan egiteko bizi izatetik, bizi izateko lan egitera pasatu gara oso denbora gutxian. Nolabait, iragan mendeko 70eko hamarkada igarota jendeak denbora gehiago zuen etxekeekin egoteko, kirola egiteko, atsedena hartzeko... finean, jendeak aukera zuen zenbait zaletasun praktikan jartzeko.

Hasieran, aisialdia goi-mailako jendearentzat zen soilik, baina denboraren poderioz, sozializatu egin zen. Zalantzan nago, ordea, bizi-kalitatea eta aisialdia ondo uztartzen ote ditugun.

MARTIN, J. Nondik, 2016ko alea.
Egokitua

Zirriborroetarako lekua

Zirriborroetarako lekua

Zirriborroetarako lekua

IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA